

# Txina-zale diran komunisten aurrerapenak edo atzerapenak

**EGINKIZUN ZAILLA**

Benetan, ez da erreza gai onetaz itzegitea, batez ere ondo ta eraberrit batera gai onetaz itzegitera. Asko baldira erusti-zale ta txina-zale arteko komunisten artean arkitzen diran asarrerako galak, esata bate-tasuna etab. Eta baita ere zaila da rako, ideiak, ekonomia, abertzale-eraberrit batera gai onetaz itzegitea ta idaztea gai onetaz geiegi idatzi

lilaz eta beste batean jarraitze-ko-tan.

**IDEIA EZBERDINAK TA ISTORIAREN URRATSAK**

Mao-Tse-Tung'ek antz aundia arkitzen dio oraingo komunismoaren etabaldari Lenin'en garalan gertatu zanakin eta III'go nazio-arte-koari (internazionala, alegia) sor-

alde batetik erreboluzio-zaleak eta bestaldetik reforma-zaleak gelditu-rik. Lenin'ek, erreboluzio-zale ja-torra bezela, okzidente aldeko erre-forma-zale ta "oportunistak" kon-tra nazio-arteko berris sortu zuan, marxismo jatorrari jarraitzen zio-na Lenin'ek zionez benefitji.

Ori bera da gaur egunean Mao'k pentsatzen duan erustiarren komu-nismoari ta Krouschev'en komu-nismoari begiratuta. Euren iri-tzian erustitarrak "oportunistak" biurtu dira ta erreboluziorako go-goak zeroo legundu zaizkie, orre-gatik ez dira oiek txinarren iri-tzian benetako marxistak eta leni-nistak. Ori uste dutela naiko ote dute Txina'koak beste nazio-arte-ko komunismo bat sortu Lenin'ek egin zuan bezela. Zaila da galde-ra onl erantzuna ematea. Gai'fiera, askena esan ditugun aukerak dira ematen dituzten ideialogi arrazo-iak, baiñan gerta ditek arrazo-iak aukerak beste batzuek izkutatzea.

Txekoslovakia'n berriz, aparteko gauz batzuek arkitu ditzazkegu. Emen ere azkar jarri ziran txinoin kontra, batez ere ekonomia arra-zolegatik. Txinakin erustitarren sokoak artu-emanak austerkoan geiena sufritu zutenak ekonomi galetan txekoslovakia'koan ziran, aukerak Txina'koan izan ziran, aukerak geien lotuta arkitzen zi-ranak. Gai'fiera Txina'k bere jo-kaerarekin komunismoaren bar-ruan erdi-aztako estaduak diran Roumani, Bulgari ta Ipar-Korea'ko autroki joerak indartu ditu, ta Txekoslovakia'ri, soro ortan erri industrializatuenari bezela mugak ez izatea komeni zaito ekonomi galetarako.

Ala Txekoslovakia'ko partidu komu-nista da stalin-zalehen antz aundiena daukana. Orregatik aste-ra batean Krouschev'en reforma-zaletasuna etzan onartu izan Pra-ga'n ta bai Mao'ren jokoera. Orañi ordea Mao-zaletasun ori oztu egin da, ta gai'fiera partiduaren barruan liberal kamarak gogor ari dira jo-katzen partiduaren zentralismoa-ren eta gogortasunaren kontra. Orregatik ezin gindezke arritu Txekoslovakia'ko edozein gertaera ger-tatuta ere. Esate batera mai'sta-zen lenengoan Praga'n lau mila baiño estudiante gelago manifes-tatu ziran libertatea eakatuaz.

Roumania orañ arte zan Erru-sia'ren sateliterik zintzoena, orre-gatik politikan etzuan ezertu ere kontatzen. Baiñan Errusi ta Txina'ren arteko asarrea dala ta egin du bere sarrera politikan. Neutra-lidadeko joera artu du komunis-moaren barruan, onela erustitarren kontra gogor xamar jokatu deza-kelako ta erustitarrengandik gela-go lortu dezakeelako. Gai'fiera iri-kitzen dago Okzidenteko erriekin artu-emanak ugartu ditezten. Era guztietara Roumania'ren sarrera au politikan izan da Txina ta Errusiaren arteko asarreak sortu duan gertaera arrigarrietarako bat.

(Jarraituko du)

**ASARRE ONEN ONDOREN ARRIGARRIAK**

Era guztietara komunismoaren menpean dauden estadu batzuen-tzat lokarriak leguntzeko okasioa izan da asarre au. Izan ere orañi ezkerotik kontu ditek zentralis-mo gutziagorekin, eta baita ere okzidenteko demokraziengansako joera aundia.

Errusi-zalehen soroan Hungria ta Mongolia izan dira zaletasun geie-na azaldu dutenak. Zergatik bi es-tadu auker. Krouschev eta Kadar (Hungria'ko gobernuaren buru dan) en artean oso artu-eman be-roak diralako. Eta gai'fiera Krous-chev'en asken auidetako joera on-do etorri zaielako Hungria'koel: bizikide paketsua, stalin-kontra-koa, ta bizi-neurriaren ezbeza.

Mongolia'koel dagokionez erusi-tarren laguntzet ta gurazotzari es-kerrek aldegin dezateke Txina'koen eskuetatik.



dalako, erreztasun geiegirekin, bai-ñan betiko topikoak erabiliaz. Ala ere zerbait idatzi bearko degula uste degu ta lanari ekitera goaz. Ja-kiña asteroko ontan azalez baka-rrik ikuitu dezazkegu asarre onen goraberak eta ondorenak eta bear bada gai batzuek bakarrik erabi-

itzen eman zion garajarekin. Mao'k bere burua ta berak gidatzen duan komunismoaren joera Lenin eta Marx'en jator-jatorra bezela ikusi nai du ta orrela esaten du mundu guztiauren aurrean. Garai aietan, 1919'gn. gutxi gorabera, sortu zan sozialismoaren barruan zatiketa,

## Munduan esaten dana

NEW YORK HERALD TRIBUNE

Ginebra'ko Billera  
Munduko komertzioaren etor-kizuna orañ Ginebra'n biltzen diranen eskuetan dago. Bi urte iraun lezaken billera onen ondo-renak erabaki lezake ea mundu-ko komertzioak izugarritzko azi-tze ontan danen onerako jarrai-tu bear duan edo atzera egiti bear duan munduko erri geien-galerako.

**COMBAT**

Istori aundia izango duan billera

Gaur irikitzen da Ginebra'n lenengo aldiz aurrez-aurre Seien Europa ta Ipar-ameriketa ezta-baidan jarriko dituan billera. Orañi arte bi kidehen arteko iz-keketak artu-eman txiki batzuek zuzendu zituzten, baiñan orañi-gu ontan ausartasun aundiena-rekin etorkizunarako munduan aurreratuen diran bi kidehehn arteko artu-emanak nola ta no-lakoak izango diran erabakiko dutela edo espero da.

**LE FIGARO**

Eziñezko konpoketa

Bear bada Ipar-ameriketa're-kin oso gogo onez onartu leza-kien erabakiak baiño lehen ki-dei galdetzea baiñan Frantzia'k ori beteko zanren itza eskatzen zuan. Ez da Ipar-ameriketako lendakaririk bere bi kideheh (Frantzi ta Inglaterra'ri) ezez-koaren menpean jarriko ditunik ipar-ameriketarren indarrak eta armak eta segur asko kostitu-zioak berak ez dio utziko ori egiten nai izan da ere. Bestalde-tik berriz De Gaulle'k esan le-zake, ta arrazoiarekin gai'fiera, ipar-ameriketarrak Formosan edo Caribe itxasoan egiten du-tena ez dala geldituko Frantzi'a-ren seguridatearentzat ondore-nik gabe. De Gaulle'k esaten duana konpreni zen da, ipar-ameriketarrak esaten dutena ere bai berriz.

**NAZIO-ARTEKO UNEA**

**SIRIA'KO AGINTARIAK**

Syria'n agintari dagoan partidua «baas» izena du ta sozialista ta pan-arabe dala esaten dute euren zuzenda-riak. Baiñan kontuz ibilli gaitzen itz auekin. Gaur dan-ak diote gutxi gora bera sozialistak dirala ta araben artean partidu danak diote araben batasuna nai dutela. Baiñan ez da erreza askotan bereizte noiz diran benetakoak itzak eta noiz diran propaganda zatsa. Ori geie-netan egiñekin ikusten da.

Ez dakitu ziur nolakoak diran oraingo agintariak Syria'n egin dituztenak baiñan ziur ikusten dana da agin-tari oiek Syria'ko erri guztia euren kontra daukatela. Lengo astean ejerzitauak gogor ekin bear izan du burrukak eta jendearen asarrea ixiltarazteko. Ala ere ez dirudi asko lortu duanik jendearen kontra gogor ekite-rakoan. Izan ere erri-iritziaren kontra gaur egunean ez dago luzaroko gobernatzetik, abetz ere erri orrek kon-tzientzia baldin badauka ta erreboluziorako prest baldin badago.

Gobernuan dagon partiduak beti seinlatu nai izan-ten du gobernu dala nazioaren interesak eta batasuna defenditzen duan, beste partiduak berriz erria batu bea-rrean banatu egiten dute eta kanpoko etsalen aurrean ez dituzte nazioaren interesak bear bezela defenditzen. Eta orregatik askotan erriaren laguntza lortzeagatik etsai bat, kanpoko etsai bat sortzen dute, edo sortu bea-rrik ez baldin badago aunditu ta zizendu egiten dute. Ori da oraingo Syria'ko agintariak egin dutena. Israel'ek Jordan ibaiaren urak apartatzeko asmoa du ta arabeta-rrak orren kontra daude. Ori dala ta egun aietan Syria'n izugarritzko zabaldukun ta propaganda bat sortu da Israel'en kontra ta Israel'en asmo orren kontra. Numbait barruko miña ixildu naiean kanpoko zatsa sortu ta aunditu nai dute barruko entzun ez dediti. Noiz arte ordea?

ARREGI'tar RIKARDO'k

**LIBURUAK**

**Maurice Duverger'en «Introduction a la politique» (1)**

Politikak bi arpegi dauzka. Indarra, agintaritzat talde batzuek besteak menperatzeko modua da alde batetik eta bes-tetik berriz gizartearen bear dan ordena gutxienean eduki al izate-ko modua ta gizonak elkartzeko modua.

Auek dira Maurice Duverger'ek liburu ontan atertzen dituan politikaren bi aldeak marxisten eta okzidenteko iritziak begira-tuaz. Komunisten joera ta okzi-dentearen joera sozial-demokra-zi batera dijoatzela uste du.

Onela presentatzen digu libu-ru argitaratzalleak Maurice Du-verger'en azkeneko lana. Ta bai egia dala!

Politikaren gañean itzegitea agintzaren gañean itzegitea be-zela da. Agintzak berriz burru-ka dakarki berriz. Agintaritzat

artzeko taldehen artean burru-ka lenengo ta gero agintarien eta agindutakoaren arteko burruka. Demokraziak burruka oiek le-gundu egiten ditu ta badirudi politikaren elburua dala desber-dintasunak ezetzea. Ara or libu-ruaren iru zatia. Lenengoan burru-karen sustraia atertzen di-ra. Auek biologiarenak, psikolo-giarenak, ekonomiarenak etab. izan ditezke. Bigarrenean burru-karen moduak atertzen dira: burrukarren antolaketa, burruka-rako tresnak etab. Eta irugarren zatian berriz burrukatik batasu-nera dauden bideak atertzen dira: integrazioa ta aziketara eziketaren neurria, eziñezko urrezko garaia.

Eskuartearen liburu au artuta gauz batek arritu genezake ba-gia, errealitateari jarraitzeko ta

tez ere beste askoen artean, ale-benetako errealitateari atertze-ko egilleari ikusten zaien era-baki sendoa. Orregatik gure bu-ru estu ta dogmatikoentzat ba-dirudi batzuetan «herje» xama-rra.

Egilleak berak itzaurrean dion bezela komeni da gaur egunean politikaren gañean ikusmira osa-ru bat edukitzea. Bear bada po-litikaren gertaera asko, izen as-ko ta gauz asko ezagunak zaiz-kigu gaur egunean baiñan ikus-mira osatu ori falta zigun asko-tan. Ta utsune ori betetzeko li-buru au bezelakorik gutxi. Be-netan, al baldin badezute iraku-ri ezazute, etzerate damutuko ta.

A'tar R'k

(1) Paris'en, Gallimard'ek 1964'gn. argitaratua.